



## Presoekiko Elkartasun Eguna antolatu dute

**IBARRA** ▶ Presoen koadriletako lagunek, herriko hainbat taldek eta pertsonaia ezagunek bat egin dute

**HILAREN 12AN** ▶ «Parte hartzera eta presoekiko elkartasuna ematera» animatu dituzte herritarrak ▶ 6

TOLOSA ▶

### Nafarroako Eguna Berazubiko jaietan

Estreinakoz antolatu dute egun berezia ▶ 3

## Tolosaldeko sagardoz bustitako festak eman ditu lehen zipriztinak

**ADUNA** ▶ Atzo hasi zen Upelera festa, musika eta dantzarekin; gaur, besteak beste, antzina sagardoa nola egiten zuten erakutsiko dute ▶ 4



LEITZA ▶

### Profesional mailan lehen partida jokatu du Bengoetxeak

Jaioterrian eginen du jauzia; kontratua sinatu berri du Frontis enpresarekin ▶ 7

Bengoetxea VII.a. HITZA

L. GARCIA



ARESO ▶

## Joseba Olazabali omenaldia eginen diote bihar Aresok eta Euskal Herri osoko herri kirolariek

Meza, aurrekua, pilota partidak, herri kirol saioak, herri bazkaria eta bertsolariak izanen dira, besteak beste ▶ 7

ALEGIA ▶

## Beste pauso bat Larrañaga heriotz zigorretik ateratzeko

Gipuzkoako Batzar Nagusiek eta Foru Aldundiak errukia eskatu dute ▶ 2

ALEGIA ▶ GIZARTEA

# Beste pauso bat Larrañaga heriotz zigorretik ateratzeko

Gipuzkoako Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren babes eta laguntza jaso du Paco Larrañagaren sendiak; Filipinetako presidenteari errukia eskatu berri diote

IRATXE ETXEBESTE

«Filipinetako presidente Gloria Macapagal Arroyoren errukia jasotzea da, une honetan, Paco Larrañagak duen esperantza bakarra». Alegiarrak egoera kritikoa dagoela, eta «egin ez duen zerbait» leporatuta, dagoeneko espetxean zortzi urte daramatzala gogora ekarrita haren senitartekoek ordutik duten kezka helarazi nahi izan dute beste behin gizartearen aurrean.

Bere osaba Francisco Larrañagaren hitzetan, «barkamena ahalik eta zabalena izatea nahi genuke». Filipinetan heriotz zigorrera kondenatua dagoen alegiarraren eta Amerikako Estatu Batuetan egoera berean dagoen Pablo Ibarren senitartekoek Gipuzkoako Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren elkartasuna jaso zuten herenegun. Astelehenean Heriotz Zigorraren Aurkako Eguna zelareta, ahobatez onartu zuen asteartean Diputazioak heriotz zigorraren aurka aurkeztutako idatzia.

Eta, hain zuzen, Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente



Paco Larrañaga heriotz zigorrera kondenatua dago Filipinetan. HITZA

Leire Ereñok Gipuzkoako Ahal-dun Nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarririkin eta alderdi ezberdinetako ordezkari politikoekin batera egin zuen agerraldia herenegun idatzia jasotakoaren berri emateko. Bertan ziren, halaber, heriotz zigorrera kondenatuak dauden bi lagun senitartekoak ere. Besteak beste, «burutu gabe dauden heriotz zigorrerako kondena ezartzea» eskatzen dute idatzi horren bidez; horien artean, jatorriz gipuzkoarrak di-

ren Larrañagari eta Ibarri eta Espainian bizi, baina jatorriz siriarra den Nabil Manakliri; Asian, Yemenen dago preso azken hori.

## «Giza eskubideen ukazioa»

Heriotz zigorra «giza eskubideen muturreko ukazioa» da idatzi hori izenpetu dutenen esanetan; hain justu, «estatu batek, justiziaren izenean aurrerik pentsatuta egiten duen erailketa». Horrekin batera, Francisco Larrañagak zioen bere ilobaren kasuan ez duela Filipinetako justiziari «bater funtzionatu».

1999an behin-betiko kartzela zigorrera kondenatu zuten 27 urteko Paco Larrañaga bi urte lehenago, 1997ko uztailaren 16an, Manilatik 600 kilo-

metrorra dagoen Cebu irlan Marrijoy eta Jaquelines Chiong ahizpak bahitu, bortxatu eta hil zituelakoan. 2004an Filipinetako Auzitegi Nagusiak sententzia berrikusi zuen, eta heriotz zigorra ezarri zioten Larrañagari. «Fiskalak babestutako lekuko baten deklarazioan oinarritzen da zigorra: Pacok berekin batera hilketetan parte hartu zuela esan zuen; alabaina, beste 35 deklarazio daude nire iloba han egon ez zela esaten dutenak», adierazi zuen Larrañagaren osabak.

Bi ahizpen hilketak arbuia-garriz eta higuin-garriz jo zituen Francisco Larrañagak herenegungo agerraldian, eta halaxe esan zuen: «Biktimen senitartekoekin batera sufritzen dugu guk ere, baina egin behar dena benetako errudunak bilatzea da».

Larrañagaren senitartekoek badute esperantza Filipinetako presidente Gloria Macapagal Arroyok Pacori barkazioa emango diola, batez ere, bera heriotz zigorraren aurka dagoelako. «Errukia ahalik eta zabalena izatea eskatzen dugu, heriotz zigorra bakarrik kenduko baliote behin-betiko espetxe zigorra izango lukeelako oraindik. Guretzat ulerkaitza da errugabea den norbaitek gisa horretako zigorra bete behar izatea. Paco hemen ikusi nahi dugu», zioten senideek.

Larrañaga sendiak euskal

## Ezetz heriotz zigorrari

Giza Eskubideetarako Foru diputatu Mari Carmen Marinnek Amnistia Internazionalen abiarazitako kanpainaren harira Paco Larrañagaren, Pablo Ibarren eta Nabil Manakliren exekuzioen aurka Gipuzkoako Foru Aldundian jasotako sinadurak aurkeztu zituen herenegungo agerraldian. Espainian 70.000 sinaduratik gora zenbatu dituzte honezkerok. ◀

erakundearen arreta eta ahalegina eskertzen duela adierazi zuen herenegun Francisco Larrañagak, eta baita Espainiako ena ere. «Familia guztiak sentitu dugu euskal erakundeen gertutasuna. Espainiako Estatu ere inplikatu da, eta ez dugu sekula eskertzerik izango egiten ari diren guztia. Pacok ere badu horren guztiaren berri, eta eskertu egiten du».

Gipuzkoako Ahal-dun Nagusiak heriotz zigorraren aboli-zioaren alde egin zuen: «Gezurra dirudi oraindik ere horrela behar dena benetako errudunak bilatzea da». Heriotz zigorraren aurka dagoelako. «Errukia ahalik eta zabalena izatea eskatzen dugu, heriotz zigorra bakarrik kenduko baliote behin-betiko espetxe zigorra izango lukeelako oraindik. Guretzat ulerkaitza da errugabea den norbaitek gisa horretako zigorra bete behar izatea. Paco hemen ikusi nahi dugu», zioten senideek.

Antza denez, Espainiako Errege Juan Carlos I.ak eta Espainiako presidente Jose Luis Rodriguez Zapaterok Filipinetako presidente Gloria Macapagal Arroyok Paco Larrañagaren aldeko errukia eskatzeko behar diren gestioak egingo dituzte laster. Halaxe adierazi berri dute, behintzat.

GIPUZKOAKO ARTISAUEN AZOKA  
ORDIZIA 2005  
VIII.  
ARTISAVALDIA

URRIAK - OCTUBRE 7 - 9 POLIDEPORTIVO MAJORI KIROLDEGIA

ORDUTEGIA HORARIO  
10:30 - 14:00  
17:00 - 20:30

www.artisavaldia.com

CASA EMBORRA  
LURRERAKO ELITEA

TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA			
FORMAKUNTZA IKASTAROK (Langileentzat) 2004/05			
KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA			
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Planoen interpretazioa	50	2005-10-17	18 - 21
Fabrikazio-prozesuak	60	2005-10-17	18 - 21
Lengoian egituratueta oinarritzko mailako programazio aldatzea (Visual Basic)	70	2005-10-24	18 - 21
Elektrodo estali bidezko angelu soldadura	80	2005-10-24	18 - 21
Analisi kontablea	85	2005-11-02	18 - 21
CNC sarpen bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa	30	2005-11-07	18 - 21
Motor elektrikoaren abiadura-erregulazioa (Bariadoreak)	40	2005-11-07	18 - 21
Datu-Baseak administratzea (Access - hastapena eta aurreratua)	80	2005-11-21	18 - 21
Torno konbentzionaleko mekanizazioa	80	2005-11-28	18 - 21
Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizazioa	80	2005-11-28	18 - 21

**ESKANTZA OSOA: ikastetxean edo web orrian**

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA  
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

**ARAMBURU**

Salgai (Tolosa). Pisu igogailuarekin Laramendi kalean 112m<sup>2</sup>. Bista zoragarriak, Salgai (Tolosa). Pisu Belate ibiltokian, Bista zoragarriak, sartzeko moduan, Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate ibiltokian Salgai (Ibarra). Pisu San Inazio auzoan, Guztin berria, 244,000 euro Salgai (Tolosa). Pisu San Frantziskon, 126m<sup>2</sup>. Garajearekin, Salgai (Tolosaldea). Garajeak leku ezberdinetan: Ibarra, Babiller Zakilbia kalean, Plaza zaharra... Alokatze (Tolosa). Lokal komertziala Erremotan kalean, Alokatze (Tolosa). Garajea P. de Tolosa kalean, Araba Etordean, B. Zakilbia Igarondo, 943 65 17 13 / 677 46 09 16

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Usabalgo kiroldergia

Usabalgo polikiroldegi ospetsu horretara joan nintzen hilaren 3an, 19:30etik 20:00etara, igerian egiteko asmoz, baina hauxe nire ezustekoa Euskadiko igerilekurik zabalenean kale bakoitzean sei bat lagun eta igerian ikasten zebiltzanak izkinako kalean txingurriak bezala.

Pixka bat begira egon eta bainu beroak hartu asmoz barrura sartzean nire harridurarako ura izotza baina hotzagoa! Hanka puntak sartu eta handik ere martxa!

Sauna beroa egongo zela

penstatu nuen, lurruna ikusten baitzen, baita barrengo gizon guztiak ere, ni hirurogei bat urtera dioan amona naizenez, ez nintzen ausartu gizon gazte guzti haien artean esertzen, atera eta etxera alde egitera penstatu nuen.

Ez nuen dutxatzeko gogorik ere, sartu nintzenean takiletan ez pertxarik eta ezta ezer kabitzeko modurik ere, justu-justu sartu nituen nire zamarra eta gainontzeko trasteak. Ateak erdi irekita egoten direnez, ez dago inolako intimitaterik ez dutxatzeko ezta aldatzeko ere.

Zintatan eta beste makina horietan dabiltzanak ere atean sarreran daude sartzen den jende guztiaren begiradapean.

Kanpoko igerilekuan ere izan nintzen irailean, ez zitzaidan batere gustatu, putzua lehen genuena baino askoz ere kaskarragoa, eta zegoen lokatzarekin katuskekin joateko hobeto! Handik ere estreinatu gabe atera nintzen.

Nire biziaren erdia eman dut Igarondo igerilekuan egunero ez bada ere sarritan joanez, nola barrengo ala kanpokoan, baita dotore asko arbola azpian, itzalean nahiz eguzkitan, lasai asko egonez.

Samin handiarekin baina agur. Abonua eskatuta nuenez ezetzatzeko abisua eman nuen. Hona hemen nire laburmetrairearen bukaera.

LURDES JAUREGI ▶ IBARRA

GIZARTEA ▶



Urteroko ezinbesteko hitzordua bilakatzen da Berazubiko auzotarren arteko bazkaria. JAIONE ASTIBIA

# Nafarroako Eguna, Berazubiko jaien hasiera iragarritz

Bihar egingo dute, nafar erara antolaturiko bazkari batekin; jotek eta dultzaineroek alaituko dute festa egun guztian

ERREDAKZIOA

Berazubi auzoko biztanleak hasi dira dagoeneko bere jaiak antolatzen, eta bihar ekingo diote, hain zuzen ere, lehen ekitaldiei, berrikuntza batekin, gainera. Izan ere, Nafarroako Egunaren izenarekin bataiatu duten festa antolatu dute, auzokoentzat ez ezik, herritar guztiarentzat irekia izango dena. Eguneko garrantzitsuena herri

bazkaria izango da, nafar erara prestatuko dutena. Menuan saiheskiak xirmendutan erreka eskainiko dituzte, Tolosa CF-ko plazan.

Honekin batera, nafar erara prestaturiko patatak, melokotoiak almiar erara, nafar ardoak eta sagardoa dastatu ahal izango dira. Hau guztia josten eta dultzaineroen doinuak alaituta, egun guztian zehar. Bertara joan nahi dutenek 15

euro ordaindu beharko dituzte. Antolatzaileek adierazi dutenez, bihar izango da izena emateko azken eguna eta 66 eta Ordizia tabernetan, Asier liburudendan eta Belen arraindegian daude salgai sarrerak, non ordainketa egin beharko duten.

Igandean hasi eta Pilarreko zubia aprobetxatuz, hainbat egunetan luzatuko dira auzoko jaiak; musika eta bestelako ekitaldiak nagusi izango dira.

**ipuin harrigarriak**

Herri literaturaz gozatzeko kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

- 1 Ipuin harrigarriak 1  
Kastillopranko  
Biribil-biribilak  
Ipuin harrigarriak 2
- 2 Dar-dar  
Ondo eginaren ordaina  
Ipuin harrigarriak 3  
Gatza ala erregea  
Biziak ezagutzeko hila  
Ipuin harrigarriak 4
- 3 Zapatarri asmatzailea  
Zerraldoan bizirik  
Ipuin harrigarriak 5  
Ikazkina eta heriotza  
Besterik ez bezalako kapela  
Ipuin harrigarriak 6
- 4 Estudiante Tonto  
Ezkonberriak  
Ipuin harrigarriak 7  
Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki  
Zeruko berriak  
Ipuin harrigarriak 8
- 5 Pepetxu eta Popatxu  
Kardulatza salatari

Urriaren 8tik aurrera  
ASTEBURUETAN

**berria**

+ 3 €

Laguntzaileak

Ezkerretik: Berriak, Tolosa, Berriak, Berriak, Berriak

Bizkaia

## ADUNA ▶ UPELERA SAGARDO FESTA



Jose Mari Agirre Muxkil elkarteko lehendakariak bota zuen, atzo, festa hasierako suziria; ondoren, Loatzoko ikasleak kalejiran aritu zuren. i. g.



# Asteburura begira jarri da Tolosaldeko sagardo festa

Musika eta dantza izan ziren atzo protagonista Upelera festaren lehen egunean

IMANOL GARCIA

Eman zitzaion atzo hasiera Upelera Tolosaldeko sagardo festari Adunan. Sagardoa egiteari hain lotuta dagoen txalaparta doinuekin egiten zuten festarako deia, eta Loatzo musika eskolako zenbait ikasle gazte txok eman zuten egitarauaren berri bertotan. Ondoren, Muxkil elkarteko lehendakari Jose Mari Agirrek bota zuen suziria, eta segidan hasi ziren kalejira, Loatzoko ikasleek alaiturik. Atzoko egunak musikarekin eta dantzarekin jarraitu zuten, herriko frontoian jarritako eszenatokian. Loatzoko ikasleak izan ziren berriro protagonista, afalordua baino lehen. Ondoren, dantza emanaldia eta Ipar Haizea eta Seneka taldeen kontzertua gozatu ahal izan zuten bertara bildutakoek.

Asteburuan izango da zer entzun, zer ikusi eta, noski, zer dastatu ere Tolosaldeko sagardo festan. Gaurkorako aipatze-koak dira, alde batetik, Muxkil elkarteko kideek prestatutako erakustaldia, non aintzinan sagardoa nola egiten zen azalduko duten. Bestalde, herri afaria ere izango, da eta baita bi kontzertu interesgarri ere.

## Sagarrak biltzetik, mustioa dastatzeraino

Upelera sagardo festetako ekitaldirik interesgarriena gaur arratsaldean Muxkil elkarteko hainbat kidek burutuko duten erakustaldia izango da. Aintzina erara nola egiten zuten sagardoa erakutsiko dute.

Prozesu guztia burutuko dute, sagarra bildu eta jendea-ri mustioa dastatzeko eman arte. Lehendabizi, Adunako herrigunearen ondoko sagasti batetik sagarrak bilduko dituzte. Idiek tiratutako gurdi batean eramango dute fruta, plazan kokatuta egongo den tolareraino.

Bereziki osatu dute tolarera festa honetarako, gaztainondo egurrez egina. Bertan isuriko dituzte sagarrak, eta orduan ekingo diote momentu berezianari: pisoiak erabiliz sagarrak txikituko dituzte, baina ez nolana, baizik eta doinu jakin bati jarraituz, kirikoketa izenekoa, hain zuzen. Doinu eta sagar txikitze horretatik omen dauka txalapartak bere jatorria. Garikoitz Garin, Lihor Etxeberria eta Eneko Elola ari-



Hiru sagar-txikitzaileek egindako entsegu baten irudia. I. GARCIA

ko dira pisoiak eragiten, Juan Mari Beltranekin urtebetez ikasi ondoren.

Sagarra txikitu eta gero, tolarera prentsa erabiliko dute sagar mustioa ateratzeko, eta bertara bildutako jendea-ri edateko emango diote. Mustio-

az gain, pitarra ere emango dute dastatzeko. Txikitutako sagarra urez betetako upel batean egun pare batez egon ondoren sortutako sagar-urari deitzen zaio pitarra. Ur hutsak baino zapore hobea omen du. ◀

## ZIZURKIL ▶

### Kontzertua San Millango organo berrituan

Zizurkilgo San Millan parrokiaren 1937. urtean beste batez baliatuz egindako organo bat erabiltzen dute. Aurten goan garbitu eta berritu egin dute. Lan honen ondoren, lehenengo kontzertua bihar eskainiko dute, 11:45ean. Organista Mari Carmen Azpeitia zumaiarra izango da, eta emango duen egitaraua *Sinfonia vasca* (Antonio Alberdi), *Plegaria* (Luis Urteaga), *Ave Maria* (Jose Luis Franzesena) eta *Final* (Jose Maria Beobide).

## VILLABONA ▶

### 200 faisán askatuko dituzte ehizatze

Villabonako Loatzo tiro elkarteak jakinarazi nahi die Tolosaldeko ehiztari guztiei hilaren 12an 200 faisán askatuko direla ehizatu ahal izateko Tolosaldeko mendietan.

## TELEFONOAK ▶

#### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarralde. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amarozko dispen.: 672637
  - ▶ Asunzioz klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

#### Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarari autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- #### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrumendi egotza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## iragarki laburrak ▶

**Correos.** Langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, sailkapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonon.

**Gidariak.** Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Suhiltzaileak.** Hurrengo deialdiak. Gipuzkoan. 1.400 euro hilean, bi lanegun astean. Azken plazak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.

**Administrari laguntzaileak.** Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendarora eta Anoeta. Astelehenerdik

ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Haur eskola publikoak.** Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenerdik ostiralera. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.

**Laborategiak.** Plaza libreak.

Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritza. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.

**Administrari laguntzaileak.** Plaza libreak daude udalberako. 35 orduko asteak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

BERTSOLARITZA ▶

# Gazte eta indartsu

Bihar hasiko da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia Lekunberrin; lehenengo saio honetan eskualdeko bi bertsolari gaztek parte hartuko dute, izan ere, txapelketa gazteturik eta indartsu dator

MARTA SAN SEBASTIAN

*Pasa hitza* lelopean jarriko da martxan Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia bihar, Lekunberrin. Azken laurdenetako lehen saioa izango da, eta bertan Bixente Gorostidik, Igor Muniategik, J.J. Zubieta Portuk, Amaia Agirrek, Xabier Silveirak eta Estitxu Eizaguirrek parte hartuko dute. Eskualdeko bi bertsolari arituko dira bertsotan, beraz, lehen saio honetan: Bixente Gorostidi amezketarra eta Amaia Agirre billabonatarra. Honez gain, epaile lanetan Felix Irazustabarrera alegiarra ere izango da.

Lekunberrin egingo den lehen saioan herrialdeetatik sailkatutako hogeita hamar bertsolarik emango diote hasiera txapelketari. Datorren astetan bost saio egingo dira, eta baikoitzean sei bertsolarik parte hartuko dute.

Txapelketaren mekanismoa erraza izango da: saio bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo fasera, eta finalaurrekora igaroko den taldea puntu gehien lortzen dituzten bertsolariekin osatuko da. Ondoren, finalaurrekoak 16 bertsolarik osatuko dituzte: 2001-eko zortzi finalistetatik seik eta azken-laurdenetan sailkatutako hamabik. Finalean, egungo txapeldun eta txapeldunordeari finalaurrekoetan puntu gehien eskuratu dituzten sei bertsolariak batuko zaizkie.

Aurtengo txapelketan parte hartzen duten bertsolarien adinari erreparatzea nahikoa da bertsolaritza gazte eta sasoi onean dagoela konturatzeko. Bertsolari zaharrenak 44 urte ditu, eta gazteenak 20 besterik ez. Leloak ere halaxe dio, *Pasa hitza*. Bertsolaritza belaunaldiz belaunaldi pasatzen ari den seinale.

## AMAIA AGIRRE ▶ VILLABONA

**Lehen saioa.** Amaia Agirre ilusioz beterik dago igandeko lehen saiorako. Txapelketako estreinaldian aritzeak bereziki motibatzen du. Aurtengo edizioak, gainera, ikusmin handia sortu du eta horrek, era berean, beldur pixka bat ere sorrazten diola azaldu du billabonatarrek: «Gogo handia dut iganderako, baina nire buruarengan dudak konfiantza faltak urduritu ere egiten nau».

**Helburua.** Igandean bertsotan ariko den seikoteak «maila altua» duela argitu du Amaia Agirrek. Hala ere, finalaurrekoetara heltzea du helburu. «Uste dut Xabier Silveira izango dela hurrengo fasera zuzenean pasatuko den bertsolaria, eta nire helburua puntuen arabera bigarren sailkatua izatea da», adierazi du billabonatarrek.

**Maila.** Aurtengo txapelketa «inoiz baino gazteago eta inoiz baino indartsuago» ikusten du Amaia Agirrek. Bertsolari oso gazteak ariko dira lehiatzen aurretik, «bertsolariok ibilbide berdintsua egin dugulako eta guztiok maila berdintsua dugun seinale», azaldu du Agirrek. Hori dela eta, igandeko saioa polita izan daitekeela uste du billabonatarrek.

**Faboritua.** «Nik oraindik ere Andoni Egaña oso maila onean ikusten dut, eta Maialen Lujanbio ere punta-puntan da», dio ziurtasun osoz. Txapela lortzeko asko lehiatu beharko dela dio.

**Sorpresarik bai?** Finalerako txartel bat urratzeko zirrikitua badagoela uste du billabonatarrek. Hala ere, ez da sorpresa izango, izan ere, urtean zehar



Amaia Agirre gogotsu da lehen saioan parte hartuko duelako. HITZA

oso maila onean ibili den bertsolaria izango baita txokoa egitea lortzen duena. Bertsolari seikote bat ikusten du urtean zehar izugarritzko mailan ibili

dena, eta horiek izango dira aukerak izango dituztenak. «Aurpegi berria izan daiteke, baina, sorpresa ez», adierazi du billabonatarrek.

## BIXENTE GOROSTIDI ▶ AMEZKETA

**Lehen saioa.** «Sentipen nahasketa dut nire barnean, alde bategatik, gogotsu naiz biharko eta bestetik, urduri ere banago», dio Amezetakako bertsolariak. Dakiena eta bertsotan aritzeko modua erakusteko irrika du, baina kezka ere bai. Txapelketa Nagusian parte hartzeak ilusio handia egiten dio. Denbora dezente darama txapelketarako prestatzen, eta gainean duen presioa handia dela argitu du amezketarrak.

**Helburua.** Lehen helburua saio ona egitea da. «Ondoren, gertatu beharrekoa gertatuko da», dio bertsolariak itxaropentsu. Lasai joango dela dio, eta seikoteak saio ona egitea espero du.

**Maila.** Maila orokorrean ona edo oso ona dela deritzo. Gero

eta prestatuagoak daudela bertsolariak, eta gehiago lantzen dela bertsolaritza uste du. «Oso serio hartzen da lana, ia kirol baten moduan eta horrek bertsolaritza aberasten du», dio amezketarrak. Bertsolaritzarentzat adierazgarri dela uste du, eta bertso eskolak fruituak ematen ari direla ikusten da.

**Faboritua.** Bi faborito argi ditu Gorostidik aurtengo txapelketarako: Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio. Beraz, Amaia Agirrekin bat egiten du bere kirolan. Hala ere, ez du erantzunik txapela nork eramango duen galdetzerako orduan.

**Sorpresarik bai?** Faboritok badaudela dio, baina sorpresarako aukera ere egon daite-



Bixente Gorostidi biharko saiorako urduri dagoela dio. HITZA

kela uste du amezketarrak. «Sailkatzen zaren ala ez saio bakar batean erabakitzen da eta gauza asko gerta daitezke, faktore asko daude jokoan; ur-

duri egon zaitezke, kontzentrazio falta, eta abar», adierazi du bertsolariak. Dena den, itxaropentsu eta gogotsu ageri da Amezetakako bertsolaria.

hitza

lagunen  
**txokoa**

# 10 sarreren zozketa

▶ Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak antolatuta, KEN ZAZPI eta MUCHACHITO BOMBO INFIERNO taldeen kontzertua, Tolosako zezen-plazan, hilaren 15ean.

▶ Deitu eta har ezazu parte zozketan, 2 sarrera irabaz ditzakezu.

**943 65 56 95** (11:00-13:00 / 16:00-18:00)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero





## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Herrimina

Herrimina da gure sentimenduen grina eta elkartasuna, gure bizitzaren funtsa.

Azkeneko 25 urte hauetan milaka euskaldunek utzi behar izan dute ihesean euren lana, etxea, familia, lagunak... euren herria. Egoera hau ez da azkeneko 25 urtetan ematen den gertakizun larria, horrela gizaldiak daramatzagu. Beti egon dira iheslariak mugaz alde batera eta bestera.

Estatu espainolak eta frantsesak gogoz zigortutako herria gara. Mendeetan Euskal Herria

espainolizatzen eta afrantsesatzen saiatu dira eta hein batean lortu ere. Herri honi eginiko kalteak maila guztietan izugarriak dira. Gaur ere berdin jarraitzen dute.

Euskaldun iheslariak bizi dira munduan zehar biziki baldintza gogorretan. Nik bezala milakak gure herritik ihes egin dugu. Batzuk Estatu frantsesean, Iparraldean gure herrian bizitzea erabaki dugu, beste asko munduan zehar dira. Gauden lekuan bizi berri bat errotik hasi behar dugu, baina beti zai errepresioak zainetatik noiz ebakiko digun.

Nahiz eta gure lana, familia, lagunak, mendiak, errekek, festak... gabe gelditu, nahiz eta gure familia eta lagunak egotzira larri eta pozgarrietan ezin egon, horrek ez gaitu aldentzen, baizik, gure herrimina, gure herriarekiko maitasuna handitu besterik ez du egiten.

Guk, munduko herri guztiak bezalaxe, herri batua, libre, eta justizian bizi behar duen herri baten alde jarri dugu gure lana eta indar guztiak. Guk dena eman dugu Euskal Herria mundu herriekin errespetoan eta elkartasunean bai barnean bai besteekiko izango

den herri baten alde. Ez dugu nahi ez guretzako ezta beste herrirentzako lehendabizi zapaldu aberastasunak eta askatasuna kendu, gero limosna eta militarrek bidaltzeko elkartasunaren izenean.

Beti erakutsi izan zaigu eta erakusten zaigu bakoitzak berea egin behar duela, bakoitza izan behar dela azkarrena, handiena, indartsuena, aberatsena, onena beste guztien gainetik. Hezkuntza eta kultura horiek herri eta pertsonentzako kalte beldurgarriak ekarri ditu eta ekarriko ditu.

Elkartasunean bizitzea ur

handietan murgiltzea da. Erreka tipietatik sortzen direnez ur handiak, ez gaituzten beldur izan ur handietan murgiltzeko eta bizitzeko. Bai bere baitan bai beste herriekiko errespeto eta elkartasunean bizi den herri libre bat lortzea da egin dezakegun obrarik ederrena.

Zeuk emandako maitasunetik beteriko elkartasuna azkeneko arnasaraino eramango dugun gida izango da. Herrimina berriz, gure grina. Antolatatu duen elkartasun eguna izan dadila urte guztirako elurra.

Maitasunetik.

JOKIN ARANALDE ▶ IBARRA

## IBARRA ▶ PRESOKAK

# Presoekiko Elkartasun Eguna antolatu dute hilaren 12an

«Parte hartzera eta presoek elkartasuna adieraztera» animatu nahi dute jendea

INIGO TERRADILLOS

Atzo egin zuten Ekaitz Aramendi, Eider Ijurko, Jon Mindegia, Maite Aranalde eta besteen koadrilako lagunak, herriko hainbat taldeekin batera, hilaren 12an Ibarren antolatutako Presoen Aldeko Elkartasun Egunaren aurkezpena.

«Bihar 3 urte beteko dira Goardia Zibilak Ibarren egin zuten azken sarekadatik. Ondorioz, herriko 8 gazte epaiketaren zain daude une honetan, atxilotu, torturatu eta espetxean egon ondoren. Urte bereko martxoan Eider eta Ekaitz bortizki atxilotu zituzten. Egun, Curtis-ko kartzelan daude. Urte bereko urriaren 1ean Minde atxilotu zuten, eta orain Alcala aurkitzen da. Aurtengo martxoan herriko beste gazte bat, Maite Aranalde, atxilotu zuten Frantzian, eta Presnes-ko espetxean dago. Denak ehunka kilometrotara aurkitzen

dira, etxetik urrun. Haiekin batera bere senide eta lagunak zigorturik gaude, maite ditugunak 40 minutuz kristal hotz baten atzetik ikusi ahal izateko, ehunka kilometro egin behar izaten baititugu, geure bizia arriskuan jarritz. Noski, hori baimena izanez gero», adierazi zuten. Presoak jasaten dituzten «umiliazioak, miaketak, zigorrak, isolamenduak...» ere aipatu zituzten, dituzten eskubide urriak urratzen direla salatuz.

Horrela, «egoera jasangaitz» horren aurrean, hitzetik ekin-tzetara pasatzeko ordua iritsi dela eta «gure preso eta errepresaliatu politikokoak euskal herritaru eta etxeratu arte, badakigu ez dela Euskal Herriko auzia konponbidean jarriko», eta presoentzako estatus politikoa aldarrikatzea eta exijitzea ezinbestekoa dela adierazi zuten. Horren harira, Presoen Elkartasun Eguna antolatu dutela azaldu zuten, ondorengo talde eta eragile desberdinen laguntzarekin: presoek kuadrilak: Ezer gabe, Ahariko talka, Etxea nitxek, 79ko Uzta, Apai-zaren potroak, Zergatik ez? eta



Atzo aurkeztu zuten Presoen Aldeko Elkartasun Eguna. I.TERRADILLOS

hainbat kuadriletako presoek lagunak; Ibarra Herri Ekimena; Ibarra Askatasuna; eta Ibarra Gazte Asanblada. Eta herriko hainbat talderen eta pertsonaia ezagunek atxikimena azaldu dutela gehitu zuten. Halaber, herriarrak animatu dituzte parte hartzera eta presoek elkartasuna adieraztera.

Bestalde, pasa den asteazkenean jazotakoa ere salatu zuten, izan ere, «goardia zibilak kale erdian ibartar bat gelditu, elkartasun eguneko kartel guztiak bortizki lapurtu eta meatxueman itaunketa egin zioten». Hala ere, «ez dizkigute lanerako gogoak kendu».

## iragarki laburrak ▶

## SALGAI

Egurra. Su egur lehorra salgai. Pagoa eta Haritza. Deitu 615 75 57 62 zenbakira.

## ELKARTASUN EGUNA ▶

## EGITARAUA

**08:00.** Mendi eta bizikleta Martxa.  
**12:00.** Manifestazioa Ibarra kaleetan zehar, *Euskal Presoak Euskal Herria. Estatus Politikoa alde lelopean.*  
**13:00.** Ibarra Alurr Dantza taldeak eskainitako emanaldia.  
**14:30.** Bazkaria Ibarra Xepa, Sendi Ekintza eta Deportiba elkarteek eskainita (sarrerak ohiko lekuetan egongo dira salgai astelehena bitarte).  
**17:00.** Txan Magoaren emanaldia gaztetxoentzat, herriko plazan.  
**18:00.** Herri kirolak, Ibarra kirolak.  
**19:00.** Kontzertu sorpresa. **Ondoren.** DJ-Bull-en emanaldia izango da.

## IBARRA ▶

## Ibarra Cerveranoren aurka jokatu du etxean

Aurtengo berrikuntza den Mauro brasildarrak jokatu ahal izango du bihar

## ERREDAKZIOA

Ibarra areto futbol taldeak denboraldiko hirugarren partida jokatu du bihar Belabieta kiroldegian Cerverano Deportivo talde errioxarren aurka.

Cerverano taldea estreina-koz ari da Lehen A mailan, beraz, ez dago informazio handiegirik taldearen inguruan, soilik asko borrokatu beharra izan zuela maila horretara heltzeko. 1.700 biztanle dituen herritik datoz, eta bertan futbolarekiko zaletasuna oso handia da. Jokalariei dagokionez, maila handiko atezaina dute, eta aipatzekoak dira ere eskarmentu handikoak diren bi jokalarik, hori bai, gainontzekoak, ibartarren kasuan bezala, jokalarik gazteak dira.

Ibarri buruz, esan behar da bigarren partidan lehenengoan baino maila hobea eman zuela, segurtasun handiagoarekin jokatu; baina hala ere, asko ditu jorratu beharreko puntuak. Bestalde, biharko partidako deigarriena aurtengo berrikuntza den Mauro jokatu ahal duela izango da. Jon Ander Karrekar, berriz, lesioagatik baja izango da.

Zaleei deia egiten zaie biharko partidara taldea animatzera hurbil daitezten.

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

## ARESO ▶ OMENALDIA



Aresoko herri guztia ari da bihar egingen duten Joseba Olazabalen omenaldia prestatzen. J. A.

# Joseba Olazabali omenaldia egingen diote bihar Areson

Herrik guztiak ez ezik, Euskal Herri osotik etorritako herri-kirolariek parte hartuko dute haren oroimenezkoan

JAIONE ASTIBIA

«Aresoko herri guztia ari da prestakizunetan parte hartzen», halaxe nabarmendu dute bihar Joseba Olazabali egingen dioten omenaldiaren antolakuntzatik: «Aresoko herriak eskainiko dio eta herri-kiroletako kideek ere bai».

Joseba Olazabal sokatiralaria zen Areso taldean; aurten go maiatzean zendu zen istripuz. Bihar, bere soka-kideen ekimenez, omenaldia eskainiko diote bere herrian, Areson. Eta, esan bezala, «modu batera edo bestera herri osoa» zeregin horretan murgilduta dago. Aditzera eman dutenez, bestalde, «herri kiroleko lagunak ere gurekin sartu dira aurreneko

## JOSEBA OLAZABALI OMENALDIA ▶

10:30. Meza.

11:30. Aureskua.

**Ondoren.** Kirol saioa:

▶ Pilota partiduak.

▶ Harri jasotzaileak: Ostolaza, Goenatxo, Mikel Saralegi eta Iñaki Perurena.

▶ Aizkolariak: Peñagarikano, Azurmendi, Olasagasti eta Arrospide.

▶ Trontzalariak: E. Pikabea-Morrondo, M. Pikabea-

Barberena, Aizkorbe-Kano eta Esnaola-Gabirondo bikoteak.

▶ Sokatira (goma): Araba, Nafarroa eta Iparraldea.

▶ Sokatira (lurra): Bizkaia, Gipuzkoa eta Areso.

14:30. Herri bazkaria.

**Ondoren.** Bertsolariak: Beñat Lizaso eta Aitor Mendiluze.

\*Oharra: Saio guztiak herriko plazan bertan egingen dituzte.

hitzarekin, egitarauari begiratzeari aski», zioten esker onez. Eredu gisa sokatiraren kasua aitatu zuten, «azkenik, lurralde bakoitzeko taldeak elkartzuta aterako gara», esanez.

Oroimenezko eguna izanen da, beraz, biharkoa herrian; eta nola ez, kirol saioaren aurretik, familiari oroigarria emanen diote. Guztiak, batera edo bestera, Joseba gogoan.

## LEITZA ▶ PILOTA

## Ibai Bengoetxeak bihar egingen du jauzia Leitzan

Frontis-ekin kontratua sinatu berri duelarik, profesionaletako lehen partidua jokatuko du



Ibai Bengoetxea, VII.a. HITZA

J. ASTIBIA

Ibai Bengoetxea leitzar pilotari gazteak bihar jokatuko du bere lehen partidua profesional modura: Leitzako Amazabal pilotalekuan egingen ere, 17:30ean hasiko den pilota jaialdiko bigarren partiduan.

Ibai Bengoetxeak lehengo hilean sinatu zuen kontratua Frontis enpresarekin eta bere debuta Inaxio Errandonearen eskutik egingen du, hauxe izanen baita bere bikotea atzeko koadroetan, hark adierazi zuen moduan, «lehen aitarekin jokatzen nuen, orain semearekin aritzeko zortea izanen dut, bi belaunaldi uztertuz», Migel Bengoetxea, Bengoetxea IV.a aitatzuz. Ibai Bengoetxeak, Bengoetxea VII.a izena eramanean du elastikuan. Horrela, beraz, bikote honek, Alustizaren eta Elolaren aurka jokatuko du.

Aipatzekoa da, bide batez, igandeko jaialdi horretan berean, Patxi Ruiz de Larramendik ere bere debuta egingen duela, kasu honetan aurrean Barberito VI.a lagun duela, Larraia-Gomezaren aurka jokatuz.

## LEITZA ▶ FUTBOLA

## San Kristobal arerio Aurrerak biharkoan

Gorengo Mailatik jaitsitakoa izanik, ustez talde «indartsua» izanen dute aurrez aurre

J. ASTIBIA

Berriozarko San Kristobal taldearen aurka ari beharrak dira biharkoan Aurrerako futbolariak: Gorengo mailatik jaitsitakoak izanik, «pentsa liteke talde indartsu samarra direla», ondorioztatu zuten Leitzako taldearen ordezkariak. «Maila berreskuratu

nahian ari dira lanean, nahiz eta oraingo, emaitzei erreparratuz, ez dauden unerik hoberean», zehaztu zuten.

Edozein moduz, igandean, 16:45ean hasiko da joko Arrixkilen, «partidua ziurtatzen» joanen direla adierazi zuten: «Etxeko partidua etxerako gelditu behar ditugu derrigor», zioten.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** 1955ean jaio eta aurten 50 urte betetzen dituzten festa ari dira prestatzen. Azaroaren 12an izango da. Informazioa: 650 69 35 40 (Santi Beloso), 630 90 80 45 (Joaquin Odriozola) eta 669 82 88 18 (Angel Garcia). 75 euro sartu Kutxan: 2101 0152 68 0125058396.

**Tolosa.** 2006ko egutegia egiteko Tolosan ateratako argazki lehiaketa. Sariak: urtebeteko argia eta gasa doan. Aurkezteko tokia: Tolargi (Gorosabel 34), Tolosagasa (Arostegieta 18) edo 750@tolosakoudala.net etzi 10 baino lehen.

**Leitza.** Altsasun hilaren 16an egingo den Nafarroa Oinezan ordu batzuetan laguntzeko (txosnetan, zaintzan, trafikoa bideratzen...) izena eman daiteke Karrape irratan (948 61 09 14) edo IKA euskaltegian (948 61 0776).

**Ibarra.** Alurren 10. urtemugako Kultur Astea: 11:00etan plazatik kalejiran Altxoko eta dantza eskolako gazteboak, eta Euskal Herria kalean, Emeterio Arresen eta plazan dantza saioak; 20:00etan, Belabietan, jaialdi berezia. **Ibarra.** Elkartasun Egunaren harira, mus txapelketa Euskal Herria kalean, Txairo eta Ostaize tabernen artean, 15:30ean.

**IKASTAROAK**

**Larraul.** Haur eta gazteen asialdirako begirale ikastaroa antolatu du Hezkide Eskolak (www.hezkide.org, 943 31 14 74). Larraulgo baserri batean, gaurtik maiatzaren 6ra. Zuzendariena, berriz, azarotik martxora izango da.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.  
Areso. Goizueta F. Loidi etxea. 112.

**IRRATIA**

**Goiko irratia (107 FM)**  
13:00. *Komerra* magazina. komerra@hotmail.com

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Ongi etorri, Xaxi!

**VILLABONA ▶** Euskara bultzatzeko Fleming ikastetxean erabiltzen duten Xaxi izeneko maskotari ongietorria egin zioten atzo hurrek



Haurrak sarrerara jaisten ongietorria egitera. i. g.



Ikasleek asko maite dute eskolako maskota. i. g.



Marrazkiak oparitu zizkieten haurrek Xaxiri. i. g.

IMANOL GARCIA

**E**gun berezia izan zen atzokoa Arroa auzoko Fleming eskolako haurrentzat. Xaxi izeneko maskotari ongietorria egin zioten. Ikasturte osoan izango da Xaxi haiekin, antolatzen dituzten ekitaldi guztietan parte hartuz. Eta egunero ere izango da, sarreran, kasu honetan haurrei ongietorria eginez eta bere presentziarekin euskaraz egin behar dutela gogoraraziz.

Izan ere, Xaxi euskara bultzatzeko erabiltzen dute Haur Hezkuntzako ikasleak dauden Fleming eskolan. Ipotx itxura duen maskotak ez du euskara baino ulertzen —ipuin batez azaltzen zaizenez haurrei—, eta, beraz, ikastetxera sartzean haurrek euskaraz egin behar dute Xaxik ere uler ditzan.

Atzoko ongietorrian, haurrek beren marrazkiak oparitu zizkieten Xaxiri, bere kanta abestu eta ikasgeletan landutako abestiak eta jolasak eskaini zituzten. Xaxik ere oparriak ekarri zituen bere oporraltzik haurrentzako. Orain, hurrengo udara arte Fleming- gen geldituko da ikasleekin batera jolastuz ikasteko.

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**  
Amaia.  
Ebeke guztien partetik.



**URTE ASKOAN**  
Libe Barriola Goikoetxea (Tolosa).  
Gaur 7 urte. Zorionak ebeke erreginari. Familia osoaren partetik.



**ZORIONAK**  
Miren, Iñaki eta Joxe Mari. Ondo pasa urtebetetze egunean familiaren partetik.



**ZORIONAK**  
Inhar Zubeldia (Abaltzisketa).  
Zorionak Sara eta Olatzen partetik. Aupa Gut!



**URTE ASKOAN**  
Mireia Arrospe (Lizartza). Gaur 7 urte bete ditu. Kanonik dioten bezala «berlartik tiratzen zorionak ta txuku bat zuretzako». Ima, Saioa eta familiakoan partetik.

**HITZA,**  
zorion agurren  
tarteak

Urtebetetzeak,  
urrezko ezteiak,  
ezkontzak, jaioberriak...  
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behega - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia  
bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!